

## Euskal AEko industria-jarduerak % 1,6 egin du gora 2022ko azaroan


**2022. urteko lehen hamaika hiletako hazkuntza metatua % 5,7koa izan da**

Euskal AEko industria-ekoizpena 2022ko azaroan 2021eko hil berekoa baino % 1,6 handiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2022ko lehen hamaika hilen balantzearen itxieran, industria-jardueraren igoera % 5,7koa izan da.

Azaroan, aurreko hilarekin –2022ko urria– erkatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 0,7 egin du behera, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

### Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko azaroko indizearen bilakaerak, ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera, 2021eko azaroarekin alderatuta, portaera positiboa izan du *Ekipo-ondasunetan*; haietan, motordun ibilgailuen fabrikazioa, lokomotorren eta trenbide-materialaren eraikuntza eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigitza sartzen dira. Haietan, ekoizpenaren hazkuntza % 3,9koa izan da.

Ekoizpenak gora egin du, era berean, *Tarteko ondasunetan*; % 1,9ko hazkuntza izan du. Sektore horretan, honako jarduera hauek sartzen dira, besteak beste: metalurgia eta

produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

*Kontsumo-ondasunek*, bestalde, urte arteko portaera negatiboa izan dute; % 1,3ko beherakada izan dute sektorean, oro har, nagusiki *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* ekoizpenean % 11,4ko jaitsiera izan delako; haietan sartzen da, besteak beste, altzari eta etxeko aparatuen fabrikazioa. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*, berriz, % 1,2 egin dute gora. Haietan, honako jarduera hauek sartzen dira: elikagaien prozesatua eta kontserbazioa; garbitasunerako eta higienarako produktuen fabrikazioa; farmaziako produktuak, eta arropen jantzigintza.

*Energiak* % 2,8 egin du behera, 2022ko azaroan. Sektore horretan, energia elektrikoaren ekoizpena eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira.

### Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2022

|                                                           | Egutegi eraginak zuzendutako datuak |              | Datu desestazionalizatuak |
|-----------------------------------------------------------|-------------------------------------|--------------|---------------------------|
|                                                           | m / m-12                            | Am / A(m-12) | m / m-1                   |
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                                    |                                     |              |                           |
| <b>Euskal AE</b>                                          | <b>1,6</b>                          | <b>5,7</b>   | <b>-0,7</b>               |
| Araba/Álava                                               | 0,1                                 | 5,6          | -1,1                      |
| Bizkaia                                                   | 2,4                                 | 7,0          | -1,9                      |
| Gipuzkoa                                                  | 1,7                                 | 4,4          | 0,8                       |
| <b>ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK</b> |                                     |              |                           |
| Kontsumo-ondasunak                                        | -1,3                                | 4,2          | -1,3                      |
| Kontsumoondasun iraunkorrak                               | -11,4                               | -2,3         | -9,6                      |
| Kontsumoondasun ez-iraunkorrak                            | 1,2                                 | 5,9          | 0,8                       |
| Ekipo-ondasunak                                           | 3,9                                 | 9,3          | 1,5                       |
| Bitarteko ondasunak                                       | 1,9                                 | 2,0          | 0,0                       |
| Energia                                                   | -2,8                                | 12,5         | -7,9                      |

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldian (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Urtarrilaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, EAEko industrian pisu gehien duten sektoreen artean, 2022ko azaroan urte arteko hazkuntza handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Makinak eta ekipoa* (% 5,4 hazi da), *Garraio-materiala* (% 4,9) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (ekoizpena % 3,3 hazi da). Bestalde, jaitsi egin da ekoizpena honako sektore hauetan: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 6,3 behera) eta *Elikagaigintza, edariak eta tabakoa* (% 4,4 behera).

## Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Azaroa 2022

|                                      | m / m-12 |
|--------------------------------------|----------|
| Elkadura ind., edariak, tabakoa      | -4,4     |
| Zurgintza, papera eta arte grafikoak | -0,4     |
| Kautxua eta plastikoak               | -0,6     |
| Metalurgia eta produktu metalikoak   | 3,3      |
| Materiala eta tresna elektrikoak     | 0,4      |
| Makineria eta tresneria              | 5,4      |
| Garraio-materiala                    | 4,9      |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna | -6,3     |

(p) Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1) Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Urtarrilaren 9a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko azaroan, industria-ekoizpenaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan. Bizkaian, industria-jarduera % 2,4 hazi da; Gipuzkoan, % 1,7, eta, Araban, % 0,1.

### 2022KO LEHEN HAMAIIKA HILETAKO BALANTZEA

2022ko lehen hamaika hiletan, industria-sektorean, oro har, hazkuntza metatua % 5,7koa izan da. Bilakaera positibo hori honako hauen portaera onaren ondorio izan da: *Energia* eta *Ekipo-ondasunak*; haietan, aurten, orain arte, % 12,5eko eta % 9,3ko hazkuntza metatuak izan dira, hurrenez hurren.

Lurraldeen arabera, hirurek izan dituzte tasa metatu positiboak: % 7,0koa Bizkaian, % 5,6koa Araban eta % 4,4koa Gipuzkoan.

### INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan elkarlanean jardun duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hil honetako indizea laginaren % **88,13**ko estaldurarekin kalkulatu da.

#### Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel.: 945 01 75 62